

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Udalerrian salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzaren aldakuntzari behin betiko onespena ematea

Udalbatzak 2016ko azaroaren 4an egindako ohiko bilkuran eman zion behin betiko onespena udalerrian salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzaren aldakuntzari. Horrenbestez, ALHAOn argitaratu beharra dago indarrean jar dadin, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduaren 1ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Eranskina

Vitoria-Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko ordenantza

Aurkibidea

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

2. artikulua. Salmenta ibiltariaren definizioa

3. artikulua. Bide publikoan saltzeko debekua

4. artikulua. Salmenta ibiltaria indarreko araudiari egokitu beharra

5. artikulua. Aurretiazko baimena

6. artikulua. Antolaketa motak

7. artikulua. Eskaerak ebaztea

8. artikulua. Baimena emateko prozedura

9. artikulua. Eskean ibiltzea, dirua biltzea eta ausazko jokoak debekatzea

10. artikulua. Baimena lortzeko betebeharrak

11. artikulua. Baimena iraungitzea

II. kapitulua. Salmenta ibiltari motak

12. artikulua. Motak

III. kapitulua. Produktuak eta instalazioak.

13. artikulua. Salgaiak

14. artikulua. Instalazioak

- 15. artikulua. Kokapena
- 16. artikulua. Elikagaien salmenta
- IV. kapitulua. Saltzaile ibiltarien eskubide eta betebeharrak.
- 17. artikulua. Eskubideak
- 18. artikulua. Betebeharrak
- V. kapitulua. Azoka bakoitzaren baldintzak.
- 19. artikulua. Aldizkako azokak
- 20. artikulua. Aldizkako azoka gehiago sortzea
- 21. artikulua. Egun jakinetako azokak
- 22. artikulua. Egun jakinetako azoka ohikoak. Baldintza orokorrak
- 1. Urteroko jai tradizionalak direla eta.
Eguberriak.

San Prudentzio eguneko erromeria. Santiago Eguna eta Andre Maria Zuriaren jaiak. Santu Guztien eguna. Olarizuko erromeria.

- 2. Kirol, kultur, erlijio... gertakariak direla eta.
Antzinako liburuen azoka. Okasioko liburuen azoka.
Erdi Aroko azoka.

- 23. artikulua. Egun jakinetako azoka ohikoak. Berariazko baldintzak

(a) Urteroko jai tradizionalak direla eta. Eguberriak. San Prudentzio eguneko erromeria. Santiago Eguna eta Andre Maria Zuriaren jaiak. Santu Guztien eguna. Olarizuko erromeria.

- (b) Kirol, kultur, erlijio... gertakariak direla eta.
Antzinako liburuen azoka.
Okasioko liburuen azoka.
Erdi Aroko azoka.

- 24. artikulua. Baimena eskatu beharra
- 25. artikulua. Ospakizun bereziekin lotutako salmentak
- 26. artikulua. Bide publikoan jarritako saltokiak
- 27. artikulua. Izoziak saltzeko berariazko baldintzak
- 28. artikulua. Saltoki-ibilgailuetan saltzea
- 29. artikulua. Beste salmenta mota batzuk
- VI. titulua. Zigortzeko erregimena
- 30. artikulua. Udalaren zeregina
- 31. artikulua. Udalaren ahalmenak
- 32. artikulua. Badaezpada bahitzea
- 33. artikulua. Zigorrak jartzeko prozedura
- 34. artikulua. Arau-haustek
- 35. artikulua. Zigorrak

36. artikulua. Zigorren mailakatzea

37. artikulua. Administrazioaren bestelako jarduketak

38. artikulua. Preskripzioa

VII. kapitulua. Parte hartzea

39. artikulua. Ordezkaritza Batzarra

Xedapen iragankorra

Xedapen indargabetzailea

Azken xedapena

Txikizkako salmentaren ezaugarrietako bat ondasunak eta zerbitzuak azken kontsumitzaileari saltzea da.

Merkataritza establezimendu baten barruan nahiz kanpoan egin daiteke.

Testu honen bidez merkataritza establezimendutik kanpo egiten den salmenta arautu nahi da, etengabea eta finkoa ez dena eta leku zein garai jakinetan saltoki edo instalazio desmuntagarrietan egin ohi dena. Jarduera horri "ibiltari" deritza, eta teknikoki "egonkorra ez den salmenta".

Gure asmoa da egonkorra ez den salmenta –edo salmenta ibiltaria– egoki zehaztea eta jarduteko prozedura eta baldintzak arautzea, salmenta mota horrek ospe eta berme handiagoak izan ditzan.

Hori dela eta neurriak hartu behar dira, batetik, merkataritza jarduera hori merkataritza banaketaren sektorea arautzen duten oinarri orokorrei jarraituz gauzatuko dela bermatzearen, eta alderdi jakin batean dagoen eskaintza eskaerari egokituko zaiola, eta bestetik, kontsumitzaileen bidezko eskubideak aldeztararen eta jarduera garatzen den bide publikoan horrekin bat egiten duten gainerako erabilerak antolatzearen.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Zehazten diren leku-egunetarako salmenta ibiltaria arautzea da ordenantza honen xedea, ezartzeko eremutat Vitoria-Gasteizko udalerrira osoa hartuta.

2. artikulua. Salmenta ibiltariaren definizioa

Salmenta ibiltaria ohiko edo noizean behingo saltzaileek merkataritzako saltegietatik kanpo egiten duten salmenta da, saltoki edo instalazio desmuntagarrietan edota ibilgailuetan egiten dena.

Etxez etxeko salmenta, noizean behingo salmenta eta makinen bidezko salmenta automatikoa ez dira salmenta ibiltaritzat joko, instalazio finkoak badira.

3. artikulua. Bide publikoan saltzeko debekua

Oro har bide publikoan eta salmenta establezimenduetatik kanpo egindako merkataritza, salmenta edo publizitate jarduera oro debekatzen da, udal araudietan, Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean –berezi lege hori bigarren aldiz ekainaren 25eko 7/2008 Legean– eta ezartzeko den gainerako legerian araututako kasuetan salbu.

4. artikulua. Salmenta ibiltaria indarreko araudiari egokitu beharra

Funtzionamenduari eta administrazio araubideari dagokienez, salmenta ibiltariak merkataritza jardueren alorrean indarrean dauden lege xedapenak bete beharko ditu, bai eta ordenantza honek eta azoka edo salmenta mota jakinen funtzionamendua, kudeaketa eta baimenak ematea arautzen dituzten araudi jakinek xedatzen dutena ere. Gainera, jarduera jakinetarako ezargarri diren lege eta araudi xedapenekin bat etorri beharko du.

5. artikulua. Aurretiazko baimena

Ordenantza honetan araututako jardueretarako aurretiaz udal baimena lortu beharko da; jar-duera jakin bakoitzerako ezartzen diren berariazko araudietan ezarritako betekizun eta baldintzak bete beharko dira baimena emateko, eta bertan zehaztuko dira baimenaren mugak. Izan ere, salmenta ibiltarian aritzeko baimen kopurua mugatua da, horretarako lurzoru publiko gutxi dagoelako.

Salmenta ibiltarian aritzeko eskaerarekin batera baldintzak betetzen direla egiaztatzen agiriak ere aurkeztu beharko dira.

6. artikulua. Antolaketa motak

Zuzenean edo kasuan kasurako zehazten den erakunde kudeatzailearen bidez antolatu ahaliko du Udalak salmenta ibiltaria. Dena dela, Udala arduratuko da zuzenean kontu-hartze administratiboaz, osasuna zaintzeaz eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak betetzen diren ikuskatzeaz, bai eta legeaz dagozkion gainerako eskumenak baliatu eta betetzeaz ere.

7. artikulua. Eskaerak ebaztea

Udal organo eskudunak ebaztuko ditu salmenta ibiltarirako eskaerak, gehienez ere bi hilabete epean, agiri guztiak aurkezten direnetik, interes publikoa kontuan hartuta. Administrazioak ebazpen horren berri eman beharko dio beti interesdunari. Salmenta ibiltarian aritzeko udal baimena gehienez lau urterako indarra izango du, aldi horretan inbertsioak amortizatu eta inbertitutako kapitalen ordainketa bidezkoa lortzen dela ulertzen baita.

Baimenean berariaz zehaztuko da zein lekutan eta zein garaitan sal daitekeen, bai eta zer sal daitekeen ere.

Identifikazio txartel bat izango da baimenaren adierazgarri, zeina saltokian edo saltzeko erabiltzen den ibilgailuan ikusteko moduan jarrita egongo baita.

Baimenaren titularra hilko balitz, lehen graduko senideek izango lukete beste baimen bat lortzeko lehentasuna.

Baimen horiek ezeztatu ahalko dira, baldin eta interes orokorreko arrazoi justifikaturik bada, eta aplikatu beharreko indarreko legerian ezarritakoa betetzen ez bada; hori dela eta ez da eskubiderik izango kalte-ordainik edo bestelako ordainik jasotzeko.

8. artikulua. Baimena emateko prozedura

Hainbat ordenantza azaroaren 23ko 17/2009 legera –zerbitzu jardueretarako sarbide libreari eta horietan aritzeari buruzkoa– egokitze den ordenantzaren lehen xedapen iragankorrek xedatutakoarekin bat emango dira, gardentasuna, inpartzialtasuna eta bazterkeria eza bermatuz. Era berean, gizarte politikarako helburuak, ingurumena babestekoak zein interes orokorreko beste edozein ezinbesteko arrazoi aintzat hartu ahalko da baimenak emateko, Tokiko Gobernu Batzarrak xedatzen duenaren arabera.

9. artikulua. Eskean ibiltzea, dirua biltzea eta ausazko jokoak debekatzea

Salmenta ibiltaria ez da inola ere aitzakia izango eskean ibiltzeko, dirua biltzeko edo ausazko jokoetan aritzeko.

10. artikulua. Baimena lortzeko betebeharrak

1. Salmenta ibiltarian jarduteko baimena lortzeko eskatzaileek ondokoak bete beharko dituzte:

a. Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren epigrafe egokietan alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea, edo Europar Batasuneko estatu kideetako eskatzaileen kasuan baliokide dena.

b. Gizarte Segurantzaren Erregimenean alta emanda egotea, edo Europar Batasuneko estatu kideetako eskatzaileen kasuan baliokide denean.

c. Salgai dituen produktuei eta saltokiei buruzko berariazko araudietan ezarritako higiene eta osasun betebeharrak nahiz kontsumitzaileak babestekoak betetzea.

d. Udal zerga ordenantzek ezartzen dituzten tasa edo kanonak ordaintzea, bai eta diru bermeak ere.

e. Saltzailearen bizilekua zein den jakinaraztea, eta kontsumitzaileek zein helbidetan aurkez ditzaketen beren kexak.

f. Europar Batasunaz kanpokoek atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatutako egoitza-baimena eta lan-baimena eduki beharko dituzte.

g. Gasteizko Udalarekin inolako zorrik ez izatea.

h. Azoka mota bakoitzarentzat ezartzen diren gainerako betebeharrak betetzea, salgaien arabera.

i. Ekonomia jardueraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea.

2. Baldintza horiek betez gero ematen diren baimenak pertsonalak eta besterenezinak izango dira; debekatuta izango da, beraz, beste bati ematea.

11. artikulua. Baimena iraugitzea

Hauek izango dira salmenta-baimena iraugitzeko arrazoiak:

1. Indarraldia bukatzea.
2. Titularrak uko egiten badio edo hil egiten bada.
3. Baimena lortzeko eskatzen diren beharkizun guztiak edo horietakoren batzuk galtzen badira.
4. Eskatzen diren tasa edo kanonak ez ordaintzea.
5. 7. artikuluan ezarritakoa ezeztatzen bada
6. Baimena galtzea dakarren zigorra jartzea.

II. kapitulua. Salmenta ibiltari motak

12. artikulua. Motak

Era hauetan jardun ahalko da salmenta ibiltarian:

1. Aldizkako azokak:

Udal administrazioak horretarako berariaz zehaztutako lekuetan egiten diren saltzaile ibiltarien elkarretaratzei deritze horrela. Azoka horiek aldizka egingo dira, indarreko legeriak ezarritako mugen barruan; oraingo muga astean bi egunekoa da. Azoka berriak sortzea erabakiz gero, edo daudenak lekuz aldatzea, alderdi hauek zehaztu beharko dira: kokapena, kudeaketa mota, zein egun-ordutan izango den, zenbat baimen emango den gehienez, zein produktu saldu ahalko den, eta organo eskudunak ezartzen dituen gainerako betebeharrak.

2. Egun jakinetako azokak:

Azokak (liburuak, nekazaritza, eskulangintza...) edo bestelako gertakariak (kirolarekin, kulturarekin, tradizioekin... lotuak) direla eta jartzen diren behin-behineko instalazioei deritze horrela. Atal honetan sartzeko dira nekazaritzako azoka tradizionalak (Eguberrietakoa, Santiago egunekoa), eskulangintza azoka, liburu azoka, beste azoka monografiko batzuk eta oinezko salmenta. Udal organo eskudunak emango du azoka horiek egiteko baimena, eta hark erabakiko du non kokatuko diren, zein egunetan, zein produktu saldu ahalko den, zenbat saltzailek parte hartu ahalko duten, nola kudeatuko den eta zein prozedura nahiz betebeharrak ezarriko den salmenta-baimenak emateko.

3. Bide publikoan jarritako saltokiak:

Ezarpen finkoko saltoki desmuntagarrietan aldizka egiten den salmenta. Aldizkakotasun finkoa duten sasoiko salmentak (izozkiak, gaztainak...) sartzen dira atal honetan.

4. Saltoki-ibilgailuetan saltzea:

Salmenta mota honetan ibilgailuren bat erabiltzen da, beti ere baimendutako produktuen garraio eta salmentari dagozkion arauen arabera egokitutakoa. Jarduera hori aldizkakoa nahiz egun jakinetakoa izan daiteke.

5. Espazio pribatuetako salmenta:

Sarrera publikoko espazio pribatuetan egiten da.

6. Beste salmenta mota batzuk:

Ordenantza honetan jasota ez dauden salmenta ibiltaria motetan udal organo eskudunak emango ditu behar diren ebazpenak jarduera ordenantza honetan zein aplikatu behar diren gainerakoetan ezarritakoari egokitu dakion.

III. kapitulua. Produktuak eta instalazioak.

13. artikulua. Salgaiak

1. Ez da baimenik emango ezarri beharreko lege eta arauen aurka dauden produktu salmentetarako.

2. Baimenaz merkaturatu daitezkeen produktuak mugatzerik izango da; osasun aginte eskudunek zenbait produkturen salmenta debekatu ahal dute higiena, osasun publikoa eta kontsumitzaile edo erabiltzaileen segurtasuna direla eta.

3. Udal baimena zein produktutarako eman zaion, hori baino ez du saltzerik izango saltzaileak.

4. Eskumena duen udal organoak gehienez eman daitezkeen baimen kopurua ezarri ahalko du hiri ingurunea babesteko xedez, eta azoka bakoitza arautzen duen dekretu edo ebazpenean egingo da hori.

14. artikulua. Instalazioak

Finkoak ez diren instalazio desmuntagarrietan baino ez da kalean saltzerik izango, edo horretarako baimena duten ibilgailuetan. Salgaiak ezingo dira zuzenean lurrean utzi, loreak edo berriaz baimentzen diren produktuak izan ezik. Gainerako salgaiak saltokietan jarriko dira, lurretik 60 zentimetro-ra gutxienez. Instalazioek kasuan kasurako ematen diren aginduak bete beharko dituzte; baimena ematean zehazterik izango da hori, guztiek antzeko itxura eta ezaugarriak izan ditzaten. Higienarekin eta osasunarekin lotutako ezaugarriei arreta berezia emango zaie.

Azoka guztiak artisautza azokatzat edo tokiko ekoizleen azokatzat joko dira, salbu eta Merkataritza Kontseiluari entzun ondoren dagokion sailak justifikatzen duenean edo gizarteratze edo laneratze arrazoiak direla eta.

15. artikulua. Kokapena

Saltokiak agindutako lekuetan kokatuko dira. Ez dira inola ere jarriko oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa eragotz dezaketen lekuetan, edo trafikoko seinaleak edo beste adierazle batzuk ikustea eragotz dezaketen lekuetan, ez eta beste leku hauen aurrean ere: erabilera publikoko eraikinak, dendak nahiz erakusleihoak eta etxebizitzaren sarrerak.

16. artikulua. Elikagaien salmenta

Elikagaiak saltzeko baimen berezia beharko da; instalazioek, bestalde, ezaugarri hauek izango dituzte:

1) Tratatu gabeko elikagaien saltokiak: tratatu gabeko jakitzat joko dira saltzeko manipulaziorik behar ez duten produktuak, edo izatekotan zatitzea baino ez. Hau da, fruta, barazki, gazta, hestebeteak, kontserbak, eta abar.

Baldintza hauek bete behar dituzte:

a. Estalpekoak diren eta zoru gogor zein jarraitua (asfaltoa, hormigoia...) dutenetan baino ezingo dira egin, edo bestela, salgai dauden produktuak kutsa daitezen eragozten duen toldoa edo beste motako estalkia duten postuetan.

b. Saltokietatik hurbil edateko ur korrontea izango dute, bai eta komunak ere, garbitzeko behar den materialaz hornituak.

c. Beharrezkoa bada jakiak hozkailuetan gorde eta erakutsiko dira.

d. Janariak ukitu behar dituzten langileak oso zorrotzak izango dira une oro beren garbitasunari dagokionez eta Elikagaien Higieneko Prestakuntza Ziurtagiria eduki beharko dute, edo horren baliokidea Europar Batasuneko beste herrialderen bateko saltzaileak badira.

e. Nolanahi ere, salgai jarritako produktuei ezarri beharreko higiene eta osasun araudiak bete beharko dituzte saltokiek.

f. Enpresa baimenduen jakiak bakarrik saldu ahalko dira, etiketadunak; halakorik ez badute (artisau produktuetan baino ez) Osasun Erregistroko Zenbakia erakutsiko da leku ikusgarri batean, edo baliokidea Europar Batasuneko beste herrialderen batean landutako produktuak badira.

g. Nolanahi ere, jaki guztiek produktu bakoitzarentzat elikagaiei buruzko legerian ezarritako ezaugarriak bete beharko dituzte.

2. Saltzaileak tratatutako elikagaien saltokiak: unean bertan kontsumitzekoak diren elikagaiak (janari zein edariak, janariak berotu zein ez) saltzen diren instalazio ibiltariak dira.

Talde honetan txosnak, tabernak eta ostalaritzako postu ibiltariak sartzen dira. Izoziak, gaztainak, barkilloak eta abar saltzekoak, berriz, beste atal batean arautzen dira berariaz.

Baldintza hauek bete beharko dituzte:

a. Saltokiak kutsadura sor dezaketen gunetatik urrun jarriko dira.

b. Instalazioek ahalik eta garbien egon behar dute. Egunero egingo da garbiketa, desinfektatzeko produktuak erabiliz.

c. Horiek eraikitzekeo materialek horretarako egokiak izan beharko dute, iragazgaitzak, erraz garbitzeko modukoak, eta inolako intoxikazio edo kutsadurarik sortuko ez dutenak.

d. Edateko ur korrontea izan beharko dute.

e. Langileek eta manipulatzailerik eskuak garbitu ahal izateko lekuak izango dituzte, xaboiak eta behin erabiltzeko eskuoihalez hornituak.

f. Bitarteko eta instalazio egokiak izan beharko dituzte salduko dituzten janariak kontserbatzeko.

g. Elikagaiak zerbitzatzeko tresneria erabili eta botatzekoa izango da.

h. Zaborra ontzi estankoetan botako da; aldian-aldian eraman beharko da bertatik, instalazioaren osasungarritasuna bermatzearren, gutxienez egunero.

i. Garbitzeko produktuak janari eta edarietatik bereiz gorde beharko dira, eta argi etiketatuta egon beharko dute.

j. Kontsumitzeko janariak prestatzeko erabiltzen diren produktu edo lehengaiak zehatz-mehatz identifika daitekeen jatorria izango dute. Egoki etiketatuta egongo dira, alorreko araudiakin bat etorritik. Ez da iraungitze data igarota duen edo gaizki kontserbatuta dagoen produkturik erabiliko. Nolanahi ere, elikagaiei buruzko legedian finkatutako ezaugarriak bete beharko dituzte jakiek.

k. Barran jakirik erakusgarri jarriz gero, kontserbazio baldintza egokietan egin beharko da, hots, kanpoko kutsaduratik behar bezala babestuta eta beharrezkoa bada hoztuta (hozteko beira-arasetan).

l. Edozein motatako janariak izanik ere, ez dira eguzkitan eduki beharko.

m. Jakiak manipulatzeko prebentziozko higiene eta osasun arauak bete beharko dira; esaterako: janari fresko eta prestatuak giro-tenperaturan ez uztea, eskuak behar den guztietan garbitzea, kutsadura gurutzatuak eragoztekoa eta abar.

n. Prezioen zerrendak edo kartak leku ikusgarrian jarriko dira, eta ez da eskatu beharrik izango.

o. Janariak ukitu behar dituzten langileak oso zorrotzak izango dira une oro beren garbitasunari dagokionez eta Elikagaien Higieneko Prestakuntza Ziurtagiria eduki beharko dute, edo horren baliokidea Europar Batasuneko saltzaileak badira.

IV. kapitulua. Saltzaile ibiltarien eskubide eta betebeharrak

17. artikulua. Eskubideak

Salmenta ibiltaria egiteko udal baimenen titular direnek eskubide hauek izango dituzte:

1. Baimendurik dituzten saltokiak okupatzea.

2. Udalak baimentzen duen salmenta-jarduera jendaurrean eta bakean gauzatzea, baimean zehazten den ordu eta baldintzetan.

3. Baimendutako jarduera egin ahal izateko tokiko agintarien eta Udaltzaingoaren babesa eskatzea.

4. Baimenaren xede den azoka bertan behera geratzen bada hura indarrean dagoela, udal baimenaren jabe denak haren ordean egin daitekeen azokan edo beste azoka batzuetan bete gabe dauden lekuetan beste saltoki bat lortzeko lehentasuna izango du, baldin eta berariazko baldintzak betetzen baditu.

5. Bere eskubide eta interesak aldezteko egoki irizitako erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izango ditu, bai eta bere merkataritza jarduera hobetzeko balio dezaketenak ere.

6. Udalak identifikazio txartela emango dio, zeinean datu hauek azalduko baitira: a. Titularra identifikatzeko datuak.

b. Salmenta-baimenaren iraunaldia.

c. Zein produktu sal dezakeen.

d. Saltoki kopurua (beharrezkoa bada). Erreklamazioak egiteko helbidea.

e. Argazkia, beharrezkotzat jotzen bada.

7. Saltokia kokatuko den lekua ezagutzea.

18. artikulua. Betebeharrak

Honako hauek dira saltzaile ibiltarien betebeharrak:

1. Salmenta saltoki edo instalazio desmuntagarri eta erraz garraiatzeko modukoetan egin beharko da, edota denda-kamioietan, eta horiek aplikatzekoak diren arau eta legeetan ezarritako baldintzak eta udal administrazioak eskatutakoak bete beharko dituzte. Edonola ere, segurtasun, osasun eta apaindura baldintza egokietan egon beharko dute. Salgai guztiak behar bezala babesturik erakutsi beharko dira jendaurrean, eta lurretik gutxienez 60 zentimetrora, salbu eta altuera, pisua edo bestelako ezaugarriak direla kausa arazoren bat sortuko balute, Udalak horretarako baimena emanaz gero. Esleitu zaien lekua bakarrik okupatuko dute saltokia eta salgaiak jartzeko.

2. Saltokien titularrek erraz ikusteko moduko tokian jarriko dute Udalak emandako baimena. Udal baimenik gabe saltzen arituz gero, edo baimendu ez direnak salduz gero, saltokia kendu egingo da, kautelazko neurri gisa, eta behar izanez gero, merkantzia kendu edo bahituko; horretaz gain, zigor-dosierra abiaraziko da.

3. Kontsumitzaileen defentsa eraginkorra bermatzearen, saltzaileek ordainagiria edo erosketaren ordezkagiria emango dute; bertan datu hauek agertuko dira: saltzailearen izena eta ohiko helbidea, erosi den salgaia eta salerosketaren zenbatekoa. Izan ere, datu horiek eskuratu den ondasuna dela eta erreklamatu ahal izatea erraztuko dute. Horretaz gain, erraz ikusteko moduko kartel baten bitartez adierazi beharko dute kontsumitzaileek erreklamazioak non aurkeztu ahal dituzten.

4. Merkataritzako jarduera egiten dihardutela, saltzaileek indarreko legerian xedatutakoa bete beharko dute uneoro, bereziki alor hauei dagozkienak: osasun publikoaren babesa, merkataritza, merkatuaren diziplina, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa, zerga araubidea eta Gizarte Segurantzarena.

5. Saltokien titularrak edo pertsona baimenduak edo lehen zein bigarren graduko senideak arduratuko dira saltokiez azokak zabalik dirauen orduetan. Pertsona juridikoen kasuan, nortzuek duten baimena zehaztu beharko dute; enpresako bazkide edo enpresaren konturako langileak izan beharko dute horiek. Debekatuta dago saltokian baimenik ez duten pertsonak egotea.

6. Saltzaileak udal langile edo agintariek eskatzen dieten dokumentazioa aurkeztu beharra izango dute eta saltoki edo instalazioetara sartzen utzi beharko diete ikuskatu eta kontrolatu dezaten.

7. Debekatuta dago megafonia edo tresna akustikoak erabiltzea.

8. Saltzaileak beren produktuen kalitatearen erantzule izango dira une oro; produktuek ez dute arriskurik izango kontsumitzaileen osasun edo segurtasunerako, ez da kalitate edo kantitate iruzurrik izango, ez eta faltsutzerik; identifikatuta egon beharko dute eta merkaturatzeko gutxieneko baldintzak bete.

9. Salgai pisagarri eta neurgarriak eskaintzen dituzten saltokiek arauzko baskula edo neurtzeko beste tresna batzuk beharko dituzte, behar bezala homologatuta. Era berean, neurtzeko tresna horiek arauzko egiaztapenak eginak izan beharko dituzte, eta horiek dagozkien etiketen bidez ziurtatuko dira.

10. Eguneko jarduna bukatutakoan saltokia egon den lekua eta ingurua garbi utzi beharko dituzte saltzaile ibiltariek.

11. Zoladura, zuhaitzak edo jabetza publikoko ondasunak oro har hondatuz gero horiek konpontzeko erantzukizuna beren gain hartu beharko dute, beste batzuei eragindako kalteengatik izan dezaketen erantzukizunaz gain.

12. Baimenak irauten duen bitartean hura lortzeko kontuan hartu ziren betebeharrak eta baldintzak guztiak betetzen jarraitu beharko dute saltzaileek, bai eta ordenantza honetako xedapen guztiak zein garatzeko ematen diren gainerakoak, eta udal agintari eskudunek ematen dituzten aginduak ere.

13. Saltokien arduradunek langile guztiak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean edo autonomoen erregimenean alta emanda eduki beharko dituzte, edo baliokide den Europar Batasuneko erregimenean; baimena eskatzen duten unean horien zerrenda aurkeztu beharko dute.

14. Ibilgailuak azoka hasi baino ordubete lehenago sartu beharko dira eremuan zamaketa-lanak egiteko. Salmenta-orduetan debekaturik dago azoka barruan ibilgailuak ibiltzea.

15. Lizentziak norberak eta ez bestek erabiltzeko izango dira, debekatuta dago haiek eskualdatzea.

16. Baimendutako pertsonen salmenta ibiltariko azoketara joan beharra dute, eta joan ezean, behar bezala justifikatu beharko da.

Zehazki, Vitoria-Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzaren 19.2) artikulua jasotako aldizkako azoka ibiltarietara astean behin joaten diren baimendutako pertsonen urtean 4 aldiz huts egiten badute eta horiek justifikatzen ez baditu, edo astean bitan joaten direnek 8 huts egiten badituzte, dagokion zigorra jarri ahalko zaie, arau-hauste arintzat joko baita hori.

V. kapitulua. Azoka bakoitzaren baldintzak.

19. artikulua. Aldizkako azokak

1. Espainia plazako igandetako azoka. Azoka tradizional hori Espainia plazako arkupeetan egiten da, urteko igande guztietan, 10:00etatik 15:00etara.

Ezaugarri hauek ditu:

a. Truke eta salmenta objektuek aisia eta kultura arloko bilduma-gaiekin lotutakoak izan beharko dute: filatelia, numismatika, postalak, kromoak, puruen eraztunak, txapak, giltzakoak, liburuak edo antzekoak; edo erabilitako gauzak izan: altzariak, apaingarriak...

b. Instalazioa: mahai edo astotxoetan jarriko dira salgaiak, inoiz ez lurrian zuzenean, plazako arkupeetan; gehienez metro bat zabal eta bi metro luze izango dira saltokiak. Baimenean zehaztuko da instalazio bakoitzari zein espazio dagokion; nolana ere, etxeetako eta zabalik dauden negozioetako sarrerak libre utzi beharko dira.

c. Ordutegia: Saltokiak igande goizetan jarri ahalko dira. Vitoria-Gasteizko Udalak egun jakinetan saltokiak ez jartzeko agintzeko eskubidea izango du, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik plaza beste zerbaitearako erabili behar bada.

d. Baimena: Udalak emango du saltokia jartzeko baimena. Horretarako interesatuek eskaera aurkeztu beharko dute, zein objektu saldu nahi duten adieraziz.

Baimena eman aurretik instalazio bakoitzari kokapen bat esleituko zaio, leku erabilgarriaren arabera, eta baimena ematen den aldirako ezarritako tasa edo kanona ordaindu beharko da.

Baimena izenduna eta pertsonala izango da, eta ezin izango du beste inork erabili.

e. Baimenaren iraupena: instalazio baimenaren iraunaldia ez da urtebetetik gorakoa izango.

f. Identifikazioak: saltzaileari ematen zaion identifikazio pertsonala beti ikusteko moduan jarrita egon beharko da, instalazio baimenarekin batera, udaltzainek egiaztatzerik izan dezaten.

g. Lizentzia fiskala: jarduera hauek ez dira hertsiki merkataritzakotzat jotzen, horregatik ez da ekonomi jardueren gaineko zergarik ez eta Gizarte Segurantzaren altarik beharko; dena den, indarreko zerga-ordenantzan bide publikoa okupatzeagatik eskatzen den kanon edo tasa ordaindu beharko da. Jarduera hau arautzeko ematen den dekretu edo ebazpenean zehaztuko dira aipatu gabe geratu diren alderdiak edo eguneratu nahi direnak.

2. Asteko azokak:

Saltoki kopurua, kokapena eta azoka egiteko egunak azoketako bakoitza arautzen duen dekretuan xedatuko dira; dena den, astean bitan baino ezingo dira izan.

Gaur egun, hiru azoka daude: salmenta ibiltariko bi, Simon Bolibar plazan bat eta Lakua-Arriagan bestea; eta hirugarren bat fruta eta barazki zein artisau ekoizleentzat, Santa Barbara azoka plazaren ondoan.

Azoka horietako salmenta antolatzearen arau hauek bete beharko dira:

a. Azoka 07:30etik 14:00etara egongo da zabalik.

b. Ebazpen baten bidez zehaztuko da nolako egitura izango duten saltokiek; saltzailea arduratuko da muntatu eta kentzeaz.

c. Salgaiak garraiatu eta gordetzeko ibilgailuek horretarako adierazten diren bideetatik joan beharko dute, agindutako noranzkoan. Baimendutako lekuetan aparkatu behar dira. 07:30etik 09:30era arte sartu beharko dute azoka eremuan, eta 15:00etatik 15:30era bitartean irten.

d. Ezin izango da ibilgailuetan zuzenean saldu, horretarako instalatzen diren saltokietan baizik; ibilgailuak salgaiak berritatzeko biltegi gisa baino ez dira erabiliko.

e. Guztiz debekatuta dago azokan megafonia jartzea, disko, kasete edo beste ikus-entzunezko batzuen salmentarako izan ezik; horiek, dena den, ezingo dute gainditu dagokion ordenantzan ezarritako soinu maila.

f. Udal Zerbitzuek hondakinak biltzeko ontziak jarriko dituzte eta saltzaileen arduraren izango da horiek erabiltzea.

g. Udal zerbitzu teknikoek higiene eta osasun kontrolak zein merkataritza eta kontsumitzaileak babestekoak ezarriko dituzte, ordenantza honetan eta horrekin lotutako xedapenetan ezarritakoa behar bezala betearaziz.

h. Vitoria-Gasteizko Udaleko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak hartuko ditu azokako merkataritza jarduna dela eta izan daitezkeen erreklamazioak; egokitzen jotzen bada azokan bertan koka daiteke bulegoa.

i. Jarduera hau arautzeko ematen den dekretu edo ebazpenean zehaztuko dira aipatu gabe geratu diren alderdiak edo eguneratu nahi direnak.

j. Elikagaien kasuan, behar bezalako higiene eta osasun baldintzetan erakutsitako produktuak dastatzerik izango da zati txikitari, kontsumitzaileek jakien kalitate organoleptikoa probatzeko aukera izan dezaten.

3. Almendrak azoka: Erdi Aroko hiriguneko merkataritza biziberritze aldera, bertan azoka egingo da hilean behin. Hilaren lehen larunbatean izango da, 10:00etatik 15:00etara, Pintore, Aitzogile, San Frantzisko, Mateo Moraza, Hedegile, Zapatari eta Errementari kaleetan eta Buruileria plazan; gerora beste kale batzuetan ere egin liteke.

Hileko azoka horrekin batera gaikako beste azoka batzuk egin litezke Erdi Aroko hiriguneko zenbait ingurutan, aldezturik baimena emanda.

Garraiorako eta saltokiak muntatzeko ibilgailuak 08:30etik 10:00etara bitartean sartu ahalko dira azokara, eta 15:00etatik 16:00era bitartean joan beharko dira.

Hauek dira arauak:

a. Erdi Aroko hiriguneko kokatutako dendetako produktuak salduko dira. Antolatzaileek beste batzuk gonbidatu ahalko dituzte hileko azokan parte hartzera, baldin eta Udalak onartzen badu eta udal zerbitzu teknikoek ezarritako baldintzak betetzen badira.

b. Aipatu kaleetako saltokiak jatorrizko dendaren ondoan jarriko dira; gehienez ere dendaren aurrealdeari dagokion kale zatia hartuko dute.

c. Saltokia jarri nahi duten Erdi Aroko hiriguneko gainerako dendek Buruileria plaza erabili ahalko dute, edo azoka egiten den kaleetan hutsik geratzen diren lekuak, baldin eta fatxada hartzen duten bebarrien jabeek baimena ematen badute, bi kaleek eta plazak osatzen duten ibilbidea ixteko moduan.

d. Etxebizitza atariak eta fatxada hartzeko baimena ematen ez duten bebarrien zein beste denda batzuek batzuen sarrerek libre utzi beharko dira.

e. Denda finkeko denda barruan saldu ohi dituzten produktuak baino ez dituzte salgai jarriko.

f. Jakiak saldu ohi dituzten dendek behar bezala enbasatuta dauden produktuak saldu ahalko dituzte. Jakien ezaugarriak direla eta behar bezala kontserbatzeko hotza behar badute erakustoki hozkailuan eduki beharko dira etengabe.

Produktuak dastatzerik izango da zati txikitik, kontsumitzaileek jakien kalitate organoleptikoa probatzeko aukera izan dezaten.

h. Debequatuta dago jakiak denda finkotik kanpora maneiatzeara.

i. Larrialdietako ibilgailuak (suhiltzaileak, ambulantiak...) igaro ahal izatea bermatuko da, eta saltokiek pasabidea ez eragoztear.

20. artikulua. Aldizkako azoka gehiago sortzea

Alkatearen dekretu bidez emango da aldizkako beste azoka batzuk sortzeko baimena; ordenantza hau arau osagarritzat erabiliko da.

Dekretuan zehaztuko dira saltokien kopurua eta haiek adjudikatzeko irizpideak.

Baimena eman aurretik Arabako Merkataritza eta Industria Ganberari, Merkataritza Mahaiari eta neurriak eragindako lurralde kontseiluei iritzia eskatuko zaie, eta hori errespetatu eta bete egingo da.

21. artikulua. Egun jakinetako azokak

Dekretu edo ebazpen bidez egun jakinetan eskulangintza, arte, nekazaritza edo feria azokak egiteko baimena ematerik izango da, bakoitzari dagozkion artikulua merkaturatzeko.

Baimena emateko erabakian alderdi hauek zehaztuko dira: kokapena (salbuetsitako hiri perimetroa ere erabil daiteke), saltokien gehieneko kopurua, saltokien eraikuntza eta estetika baldintzak, salgaiak, egunak, saltzaileek bete beharreko baldintzak eta merkatu diziplina dela eta zehaztu behar diren gainerakoak.

Nekazaritza produktuen azoketan sasoiko produktuak baino ez dira salduko, eta ordenantza honetako arau orokorrak eta bereziki ezartzekoa den higie eta osasun araudia bete beharko dituzte.

22. artikulua. Egun jakinetako azoka ohikoak. Baldintza orokorrak

Egun jakinetan azoka hauek egin ohi dira:

1. Urteroko jai tradizionalak direla eta.

Eguberrietan:

– Eguberrietako zuhaitzen azoka.

– Eguberrietako azoka.

– Eguberrietako nekazaritza azoka.

San Prudentzio eguneko erromeria:

– San Prudentzioko erromeria dela eta egiten den azoka.

Santiago eguna, Andre Maria Zuriaren jaiak eta auzoetako jaiak:

– Santiago eguneko baratxuri azoka.

– Andre Maria Zuriaren jaietako azoka.

– Jaietako puxikak, lepo-zapiak, txanoak eta beste oinez saltzea.

– Jaiak direla eta auzoetan jartzen diren ferialekuetako salmentak.

Santu Guztien eguna:

– Santu Guztien eguna dela eta, hiriko hilerrietan jartzen diren lore azokak.

Olarizuko erromeria:

– Olarizuko erromeria dela eta egiten den azoka.

2. Kirol, kultur, erlijio... gertakariak direla eta.

- Antzinako liburuen azoka.
- Okasioko liburuen azoka.
- Erdi Aroko azoka.

23. artikulua. Egun jakinetako azoka ohikoak. Berariazko baldintzak

Bide publikoak okupatzeagatik eskatzen diren tasak ordainduko dira, eta garbitasunarengatik zein gerta daitezkeen kalteengatik erantzuteko zehazten diren bermeak jarriko dira.

Saltokietarako nahitaezko modelook ezartzea izango da, guztiak berdinak izan daitezen eta kokatzen diren ingurunearekin estetikoki bat etor daitezen.

Saltokiek ez dute bebarru, atari edo bestelakoetan sartzerik eragotziko, ez eta pertsona zein ibilgailuen igarobidea joan-etorriak ere; edonola ere, udal zerbitzu teknikoek zehaztuko dute non kokatu behar duten.

Egun jakinetako beste azoka batzuk sortzeko eskatuz gero, udal zerbitzu teknikoek alderdi hauek aztertzen dituen txosten bat taxutuko dute: kokapena, bide publikoaren okupazioa, trafikoa, osasuna eta alderdi horretako merkataritzan eta zerikusia duten gainerakoetan izan dezakeen eragina; dekretu bidez ebatziko da azoka jartzea.

Jakiak saltzen diren azoketan osasun betebeharrak hartu beharko dira aintzat:

1. Saltokiak osasun irizpideen arabera kokatuko dira, kutsadura gurutzatuak eragozteko; hori dela eta, animalia biziak edo beste elementu kutsagarriak ondo bereizita egon beharko dira enbasatuta ez dauden jakietatik.

2. Jaki guztiak etiketa batez identifikatuta egongo dira.

Artisau produkturen batek etiketarik ez badu osasun erregistroaren zenbakia eraman beharko du leku ikusgarri batean, edo horren baliokidea Europar Batasuneko beste herrialde batean landutakoak badira.

3. Produktu guztiak behar bezala babestuta eduki beharko dira, kanpotik kutsa ez daitezen, eta inola ere ez lurretik 60 centimetro baino gutxiagora.

4. Behar bezala kontserbatzeko hotza behar duten jakiak (gazta freskoa, jogurta, txorizo freskoa, haragi freskoa, antxoak, krema eta esnegaina duten produktuak, etab.) hotzean gorde beharko dira.

5. Manipulatzekotan zatitzea besterik eskatzen ez duten jakiak erakutsi edo saldu ahalko dira bakarrik.

6. Saltokitik hurbil (gehenez ere 100 metrora) ura hartzeko gune bat izango dute.

7. Jaki guztiek elikagaiei buruzko legerian produktu bakoitzarentzat ezarritako ezaugarriak bete beharko dituzte beti ere.

Instalatzeko baimena ematen duten ebazpenetan zehaztuko dira azoka bakoitzak bete beharreko baldintzak. Aurretik aipatutakoetan honako hauek izango dira oinarritzkoak:

(a) Urteroko jai tradizionalak direla eta.

Eguberrietan:

Eguberrietako zuhaitzen azoka:

a. Udal zerbitzu teknikoek zehazten duten lekuan egingo da, hura arautzeko ebazpenak agintzen duen egunetan.

b. Erabat debekatuta dago espezie babestuak errotik atera, moztu, bildu nahiz saltzea. Bakarrik mintegietan edo ekoizpen estentsiboko nekazaritza inguruetan hazitako koniferak saldu ahalko dira, eta hori frogatzeko jatorrizko basozaintzaren egiaztatzea aurkeztu beharko da.

Eguberrietako azoka:

a. Foru plazan kokatuko da, baina Udalak beste leku batera eraman ahalko du egoki baderitzo.

b. Azoka 3 edo 3 metroko saltokietan banatuko da, eta irizpide estetiko bateratuak erabiliko dira.

c. Edozein motatako ibilgailuak debekatuta egongo dira, zamalanetarako izan ezik.

d. Debekatuta egongo da industrialki egindako produktuak saltzea, hala nola imitaziozko bitxiak, ordulariak, elektronika-gaiak, elikagaiak, edozein motatako edariak, liburuak, bideo-zintak, diskoak, arropa, oinetakoak eta bestelakoak, hots, eskulangintzarekin zerikusirik ez dutenak.

e. Debekatuta dago saltokietan megafonia industrialak jartzea.

f. Ez da piercing nahiz tatuatze iraukerarik egiterik izango.

g. Baimena emateko ebazpenean zehaztuko dira egutegia, ordutegia eta gainerako baldintzak.

Eguberrietako nekazaritza azoka:

a. Espainia plazan egingo da, Gabon egunaren aurreko ostegunean, baina Udalak beste leku batera eraman ahalko du egoki baderitzo.

b. Azoka izateaz gain lehiaketa denez, ordenantza honetako 16.1. a) artikuluan zehaztutako higie eta osasun baldintzak bete beharko dira, salbu eta leku estalia izateko beharra.

c. Janari prestatuak 16.1. b) artikuluan ezarritakoari jarraikiz saldu eta zerbitzatuko dira; ur korronterik baliatu ezin denez, erabili eta botatzeko ontzietan zerbitzatuko dira.

d. Saltokien titularrek behar bezala garbitu beharko dute erabili duten lekua.

San Prudentzio eguneko erromeria:

— San Prudentzioko erromeria dela eta egiten den azoka:

a. Armentiako administrazio batzarrak antolatzen du, baina udal zerbitzu teknikoek zehaztuko dute zein leku hartuko duen.

b. Udal zerbitzu teknikoek zehazten duten eremuan jarriko dira txosnak eta artisau jaki tipikoak saltokiak.

c. Ordenantza honetako 16. artikuluan zehaztutako higie eta osasun baldintzak bete beharko dira, salbu eta leku estalia izateko beharra. Hori dela eta, artisau jakiak behar bezala enbasatuta egongo dira, eta ezingo dira zatitu.

d. Txosnetan erabili eta botatzeko materialak baliatuko dira, ezinezkoa baita bertan edateko ur korrontea izatea.

e. Erromeriako objektu tradizionalen saltokiak eta izozki saltokiak trafikoa eta oinezkoen joan-etorria ez eragozteko moduan jarriko dira.

f. Interesatu guztiek Armentiako administrazio batzarrari aurkeztu beharko diote eskaera, eta hark Udalari igorriko dio eskaeren zerrenda.

g. Instalazioak altxatzen direnean hartu duten lekua guztiz garbi utziko da.

Santiago eguna, Andre Maria Zuriaren jaiak eta auzoetako jaiak

Santiago eguneko baratxuri azoka:

a. Santiago Apostoluaren egunean, uztailaren 25ean, izango da, Errege atean, San Frantzisko kalean eta San Frantzisko aldapan, edo zehazten diren beste leku batzuetan.

b. Ezarritako zozketa sistemaren arabera eta zenbakien bidezko banaketa erabiliko dira lekuak esleitzeko, edo aurkezten diren eskaerak kontuan hartuz ezartzen den beste edozein sistema, aurkezten diren eskaerak kontuan hartuz.

c. Bide publikoa okupatzeko baimenak aipatu eguneko 7:00etatik 24:00ak arte baratxuriak saltzeko balioko du bakarrik.

d. Saltokiek gehienez 4 metro luze eta 2 metro zabal izango dute, eta eman zaien eremuaren barruan jarri beharko dira.

Salgaiak galtzadan jarriko dira, eta espaloia libre utzi; ezingo da ez etxolarik ez bestelako esparru itxirik jarri.

e. Udal zerbitzu teknikoek agindutako lekuan jarriko dira, oinezkoen joan-etorriei zein ibilgailuen pasabideei enbarazu egin gabe eta etxeetako sarrerak zein bidegurutzeak oztopatu gabe.

f. Erabat debekatuta dago saltzeko eremuan ibilgailuak aparkatzea.

Andre Maria Zuriaren jaietako azoka:

a. Senda ibilbidean eta Carmelo Bernaola kalean kokatuko da, baina Udalak beste leku batera eraman ahalko du egoki baderitzo.

b. Azoka 3 edo 3 metroko saltokietan banatuko da, eta irizpide estetiko bateratuak erabiliko dira.

c. Edozein motatako ibilgailuak debekatuta egongo dira parkearen barruan, zamalanetarako izan ezik.

d. Baimenak emateko lehentasunak, saltzeko betebeharrak eta gainerako baldintzak Eguberrietako azokako berak izango dira.

e. Berariaz debekatzen da piercing nahiz tatuatze iraunkorrik egitea.

f. Ez da megafonia erabiltzerik izango.

g. Debekatuta egongo da industrialki egindako produktuak saltzea, hala nola imitaziozko bitxiak, ordulariak, elektronika-gaiak, elikagaiak, edozein motatako edariak, liburuak, kaseteak, bideo-zintak, diskoak, arropa, oinetakoak eta bestelakoak, hots, eskulangintzarekin zerikusirik ez dutenak.

h. Baimena emateko ebazpenean zehaztuko dira egutegia, ordutegia eta gainerako baldintzak.

Jaietako puxikak, lepo-zapiak, txanoak eta beste oinez saltzea:

a. Santiago egunean (uztailaren 25a) eta abuztuaren 4ko 20:00etatik abuztuaren 9ko 24:00etara arte jardun ahalko da horretan.

b. Oinezko salmentarako baimenak ibilian aritzeko dira, eta, hortaz, ezin izango da leku finko batean jarrita egon.

c. Jaietako objektu tipikoak (puxikak, lepo-zapiak, txanoak eta beste) saltzeko da baimena. Beraz, debekatuta egongo da bestelako gairik saltzea.

d. Ebazpen baten bidez zehaztuko da zenbat baimen emango den eta zein betebeharrak eskatuko zaien interesatuei horretan aritzeko, bai eta gainerako baldintzak ere.

Jaiak direla eta auzoetan jartzen diren ferialekuetako salmentak:

Santiago eguna, Andre Maria Zuriaren jaiak edo auzoetako jaiak direla eta instalatzen diren ferialekuetan jartzen diren saltokietan jaiak (maneatzaileek tratatuak edo tratatu gabeak) saltzeko ordenantza honetako 15. artikuluan eta dena delako feria baimentzeko ebazpenean ezarritakoari jarraituko zaio.

Gainerako produktuei dagokienez, ordenantzaren arau orokorretan eta salmenta baimentzeko ebazpenean ezarritakoari jarraituko zaio.

Feria atrakzioak, tonbolak, zorizko jokoak eta antzekoak araudi honetatik kanpo uzten dira, ez baitira salmenta ibiltarizat jotzen.

Santu Guztien eguna:

Santu Guztien eguna dela eta, hiriko hilerrietan jartzen diren lore azokak:

a. Santu Guztien egunean (azaroaren 1ean) egiten den lore salmenta ebazpen bidez arautuko da.

b. Santa Isabel eta Salbatzailearen hilerrien inguruan jarriko dira saltokiak, Bide Publikoen Zerbitzuak zehazten duen lekuetan.

c. Salmenta baimenak astebete iraungo du, Santu Guztien egunaren aurreko igandetik hasita hurrengo igandera arte; lekua guztiz garbi utzi beharko da azokaren ondoren.

d. Saltoki bakoitzak gehienez 4 metroko fatxada izan ahalko du.

e. Saltoki kopurua mugatu ahalko da, lurzoru publiko gutxi edo interes orokorreko arrazoiak badaude.

Olarizuko erromeria:

Olarizuko erromeria dela eta egiten den azoka:

a. Andre Mariaren Jaiotzaren egunaren (irailaren 8a) ondorengo astelehenean izango da.

b. Jaki artisau tipikoen saltokiak Olarizuko zelaietan jarriko dira, udal zerbitzu teknikoek zehazten duten eremuan.

c. Ordenantza honetako 16. artikuluan zehaztutako higiene eta osasun baldintzak bete beharko dituzte, salbu eta leku estalia izateko beharra. Hori dela eta, artisau jakiak behar bezala enbasatuta egongo dira, eta ezingo dira zatitu.

d. Erromeriako objektu tradizionalen saltokiak eta izozki saltokiak zelaiaren sarbidean jarriko dira, eta oinezkoen joan-etorria ez eragozteko moduan.

e. Interesatu guztiak eskaera bat aurkeztu beharko dute, eta dagokion ebazpenean eskatzen diren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu.

f. Saltokiak hurrengo egunean altxatu beharko dira, hartu duten lekua guztiz garbi utzita.

(b) Kirol, kultur, erlijio... gertakariak direla eta.

Antzinako liburuen azoka:

Baimentzen den leku-egunetan egingo da.

Okasioko liburuen azoka:

Baimentzen den leku-egunetan egingo da.

Erdi Aroko azoka:

a. Frai Zacarias Martinez, Santa Maria eta Eskola kaleak hartuko ditu azokak, eta mutur batetik Buruileria plazaraino eta bestetik Aihotz plazaraino eta San Bizente aldaparaino iritsiko da. Ereku horren barruan geratzen diren kaleak eta plazak ere har ditzake. Ereku horiek saltoki kopuruaren eta lekuen erabilgarritasunaren arabera alda litezke.

b. Eskulanak, elikagaiak, lanbideak... erakutsiko dira azokan, hura antolatzeke araudian zehazten diren proportzioan eta baldintzetan.

c. Etxebizitzen atariak eta fatxada hartzeko baimena ematen ez duten bebarruen zein zabalik dauden denden sarrerak libre utzi beharko dira.

d. Larrialdietako ibilgailuak (suhiltzaileak, anbulantziak...) igaro ahal izatea bermatuko da, eta saltokiek pasabidea ez eragozte.

e. Jakiak saldu ohi dituzten dendek behar bezala enbasatuta dauden produktuak saldu ahalko dituzte. Jakien ezaugarriak direla eta behar bezala kontserbatzeko hotza behar badute erakustoki hozkailuan eduki beharko dira etengabe.

f. Produktuak dastatzerik izango da zati txikitik, kontsumitzaileek jakien kalitate organoleptikoa probatzeko aukera izan dezaten.

g. Instalazioak altxatzen direnean hartu duten lekua guztiz garbi utziko da.

24. artikulua. Baimena eskatu beharra

Erakunde publiko zein pribatuek bestelako azokarik antolatu nahi badute Udalarri jakinarazi beharko diote hark onetsi dezan. Deialdi publikoa egin beharko da, elkarren arteko lehiaren erregimenaren bidez, eta bertan ezarriko da non egingo den eta zein baldintza bete behar den baimena emateko.

25. artikulua. Ospakizun bereziekin lotutako salmentak

Kirol edo kultur ekitaldiak, edo erlijio jaiak edo jai zibilak direla eta, dena delako ospakizunarekin lotutako gaiak saltzeko baimena eman ahalko da. Baimenean zehaztuko da noiz, non eta zer saldu. Baimena leku eta epe jakin baterako emango da, dena delako ospakizunak irauten duen tarterako.

Bakarrik ekitaldi edo ospakizunarekin lotutako gaiak saldu ahalko dira.

26. artikulua. Bide publikoan jarritako saltokiak

1. Urte sasoi jakinetan izaten diren eta bertan kontsumitzekoak ez diren produktuen saltokiak (gaztainak, txurroak, izozkiak edo loreak), finkoak nahiz mugikorak, aldiz aurretik ezarritako lekuetan jarri ahalko dira, dagokion lehiatze prozeduraren bitartez.

2. Baimena jabari publikoaren erabilera berezira izango da; horrek esan nahi du okupazioa behin-behinekoa dela, lehiaketan edo enkantean ezartzen den eperako.

3. Lehiaketan edo enkantean zehazten diren fidantzak eta tasak ordaindu beharko dira; jarduera egiteko behar diren gainerako zerbitzuak ere (argia, ura, etab.) adjudikazioa hartzen duenak ordaindu beharko ditu.

4. Adjudikatzeko administrazio egintza arautzen duen baldintza-orrian zehaztuko da zein leku hartu ahalko duten saltokiek; edonola ere, udal zerbitzu teknikoek zehaztuko dute kokapen zehatza.

5. Saltokien adjudikaziodunek garbi eta onik zaindu beharko dute erabiltzeko baimena ematen zaien jabari publikoa; halaber, bermea ezarri beharko dute kalterik sortuko balute ere.

6. Vitoria-Gasteizko Udalak salmenta horretan aritzeko saltoki eredu jakin batzuk nahitaez erabiltzeko agindu dezake, hiri altzarien irizpide estetikoekin bat etor daitez.

7. Dena dela, saltoki horiek bide publikoan jartzeak eragiten dien merkataritza alorreko saltzaileei zenbat saltoki eta non kokatu galdetuko zaie, merkataritza edo profesionalen elkartearen bitartez.

27. artikulua. Izoziak saltzeko berariazko baldintzak

Izozi salmentak higiene eta osasun baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Saltokiak kutsadura sor dezaketen guneeetatik urrun jarriko dira.

2. Saltokiak eraikitze materialak horretarako egokiak izan beharko dute, iragazgaitzak, erraz garbitzeko modukoak, eta inolako intoxikazio edo kutsadurarik sortuko ez dutenak.

3. Saltokiaren oinarria kaleko lurretik isolatuta egongo da, eta garbitzen eta desinfektatzen erraza izango beharko du.

4. Bitarteko eta instalazio egokiak izango dituzte salgai dituzte izozkiak kontserbatzeko.

5. Edateko ura izango dute.

6. Salgai jartzen diren produktuak industria baimenduetakoak izango dira.

7. Garbitzeko produktuak janari eta edarrietatik bereiz gorde beharko dira, eta argi etiketatuta egon beharko dute.

8. Saltzaileek Elikadura Higienearen arloko Prestakuntza Ziurtagiria eduki beharko dute, edo horren baliokidea, Europar Batasuneko herrialde bateko saltzaileen kasuan.

9. Instalazioak guztiz garbi eduki beharko dira.

10. Edonola ere, elikagaiei buruzko legerian produktu horientzat ezarritako betekizunak bete beharko dira.

28. artikulua. Saltoki-ibilgailuetan saltzea

Salmenta mota honetan ibilgailuren bat erabiltzen da, beti ere baimendutako produktuen garraio eta salmentari dagozkion arauen arabera egokitutakoa.

Jakiak saldu nahi izanez gero, jaki bakoitzari aplikagarri zaizkion arau tekniko eta osasun arauak bete beharko dira.

Saltoki-ibilgailuen edo antzekoen bidezko salmentarako elkarren arteko lehia-erregimenaren bidezko deialdi publikoa egin beharko da, eta bertan ezarriko da non egingo den eta zein baldintza bete behar den baimena emateko. Horrek ez du kentzen ibilgailu horiek Gasteizko Udalak baimendutako ekitaldien barruan egon ahal izatea.

29. artikulua. Beste salmenta mota batzuk

Salmenta ibiltarirako eman den sailkapena gorabehera, badira atal horietan sartzerik ez dagoen zenbait jarduera, eta horiek ere arautu behar dira. Esaterako: 1. Udal baimena beharko da makina automatikoen bidezko salmentarako, direla bide publikoan jarritakoak direla establezimenduetatik kanpo bide publikotik eskuratzeko moduan jarritakoak.

Baimena lortzeko, Merkataritza Jarduera Antolatzeko Legeak eta ezartzekoa den gainerako legeriak eskatutako betekizunez gain, instalazio desmuntagarriak izan beharko dute, ez finkoak.

Baimena ematerakoan kokatu nahi den alderdiko baldintzak hartuko dira kontuan.

Besterik ezean, makina instalatuta dagoen edo argi-indarra hartzen duen lekuaren jabea joko da aparatuen arduraduntzat.

Saltoki horiek adingabeek oso eskura izaten dituztenez, berariaz debekatzen da horien bidez tabakoa, edari alkoholdunak eta mendekotasuna sor dezaketen bestelako produktuak saltzea, edo maneatzean adingabeei kalte eragin diezaieketenak.

Makinak baimenik gabe edo baimenaz bestelako baldintzetan instalatuz gero, zigor prozedurari ekingo zaio, eta debekuak irauten duen bitartean makina prezintatzeko agindu ahalko du organo eskudunak.

VI. titulua. Zigortzeko erregimena

30. artikulua. Udalaren zeregina

Udalak, bere eskumenez baliatuz, ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta merkataritzaren alorrean unean-unean indarrean dauden garbitasun, osasun, segurtasun eta kontsumitzaileen babesari buruzko arauak jagon eta bermatuko ditu.

31. artikulua. Udalaren ahalmenak

Udal aginteak, zaintza eta kontrol zereginak gauzaterakoan, produktu, jarduera eta instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, eta horiei buruzko behar adina informazio eta dokumentazio eskatu saltzaileei.

32. artikulua. Badaezpada bahitzea

Udal agintaritzak salgai dauden produktuak badaezpada bahitzea edo atzematea erabaki dezake, ezarri beharreko araudiari jarraituz, baldin eta produktu horiek kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan jartzen badute, edo kalitatean edo kantitatean iruzurrezkoak badira, faltsututakoak badira, bereizgarririk gabeak badira, edo merkaturatzeko ezarri diren gutxieneko baldintzak betetzen ez badituzte.

33. artikulua. Zigorrak jartzeko prozedura

Ordenantzan aurreikusitako arau-haustek zigortzeko indarrean dagoen administrazio prozedurari jarraituko zaio.

34. artikulua. Arau-haustek

Aplikatzekoak diren alorreko xedapenek ezarritakoa gorabehera, ordenantza honetan ezarritakoaren aurkako arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

1. Hauek dira arau-hauste arinak:

Ordenantza honetako xedapenak besterik gabe ez betetzea, zuzeneko diru-ondoriorik ez dutenean eta kontsumitzaileei kalterik sortzen ez dietenean, baldin eta larritzat edo oso larritzat hartzen ez badira.

2. Hauek dira arau-hauste larriak:

a. Arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea, hots, urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoa dela medio halakotzat jo delarik.

b. Zuzeneko diru-ondorioak dituztenak edo kontsumitzaileei kalte egiten dietenak.

c. Osasunaren inguruko urratze larriekin batera gertatzen direnak.

d. Nahitaezko udal-baimenik gabe salmenta ibiltarian aritzea.

e. Agintariek eta agenteek ikuskapen eta kontrol zereginetan eskatzen dizkieten datuak edo argibideak eman nahi ez izatea, edo zehatzak, osoak nahiz benetakoak ez diren argibideak ematea. Uko egitearekin batera agintariak edo agenteak hertsatzea, mehatxatzea edo nolabait estutzea.

f. Arauak hausten dituzten jarduerak eteteko eskakizuna ez betetzea.

3. Hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

a. Arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea, hots, urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoa dela medio halakotzat jo delarik.

b. Osasunaren inguruko arau-hauste oso larriekin batera gertatzen direnak edo jendearen osasuna eta segurtasuna arrisku larrian jartzen dutenak.

c. Kontsumitzaileei kalte larriak sortzen dizkietenak.

d. Gehiegizko irabazpidea ematen duten edo ekonomi antolaketa larriki aldatzen duten arau-hauste larriak.

35. artikulua. Zigorrak

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako legedia orokorrean eta Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueren buruzko 10/2015 Legean aurreikusitakoa ezartzeaz gain, arau-haustek

Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira, eta udalaren eskumena izango da arau-hauste arinak eta larriak zigortzea, honako taula honen arabera:

1) Arau-hauste arinak direla eta zigor hauek ezarriko dira:

1. Ohartarazpena;
2. eta/edo 25.000,00 eurorainoko isuna,
3. eta/edo salmenta-baimena gehienez ere hilabetez galtzea.

2) Arau-hauste larriak direla eta zigor hauek ezarriko dira:

1. 150.000,00 eurorainoko isuna,
2. eta/edo salmenta-baimena galtzea.

3) Arau-hauste oso larriak Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek zigortuko dituzte, 900.000,00 eurorainoko isunaz.

36. artikulua. Zigorren mailakatzea

Ezar daitezkeen zigorren mailaketarako, kontuan izango da beti ere saldutako produktuen izaera, egindako kalteak, araua hautsi duenaren asmoa edo behin eta berriro egitea, eta arau-haustearen gizarte eragina.

37. artikulua. Administrazioaren bestelako jarduketak

1. Agintariek edo ordenantza honetan agindutakoa betetzen denetz ikuskatu eta kontrolatzeaz arduratzen diren agenteek arau-haustea ekarri duten salgaiak atzeman ahalko dituzte, ezar daitezkeen ebazpena eraginkorragoa izan dadin. Salgaiak udal areto batean gordeko dira prozedura ebatzi arte, isunik ezartzen bada hori ordainduko dela ziurtatzeko neurri gisa.

Produktuak atzemanaz gero akta batean jasoko da, eta hori egiteko arrazoiak azalduko. Interesatuari aktaren kopia emango zaio, eta entzunaldirako aukera, agiri horretan bertan.

2. Espedientea ebaztea dagokion agintaritzak, zigor gehigarri gisa, faltsututako salgaiak, iruzurrezkoak edo merkataritzarako ezarri diren gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak konfiskatzeko agindu dezake. Zigorraren gehigarri gisa konfiskatzeko zigorra ezartzeko arau berak beteko dira.

3. Ontziratu gabeko produktuak edo epe laburrean galtzen direnak konfiskatuz gero, ongintza zentroren batera eraman daitezke, aurretik osasun ikuskapena eginda.

Konfiskatutako jakiekin berdin jokatu da.

38. artikulua. Preskripzioa

1. Ordenantza honetan ezarritako arau-haustek, arinak badira, urtebeteko epean preskribituko dira, larriak badira, bi urteko epean, eta oso larriak badira, hiru urteko epean.

2. Arau-haustek preskribitzeko epea egiten diren egunetik aurrera kontatutako da. Preskripzioa eten egingo da zigortzeko prozedura abiarazten bada, interesduna horren jakitun dela; ustez erantzukizuna duenari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik zigor-dosierra hilabetetik gora geldu badago, preskripzio-epea berriro hasiko da.

3. Zigorra preskribitzeko epea hura ezartzeko ebazpena irmo den egunaren biharamunean hasiko da kontatzen. Preskripzioa eten egingo da zigortzeko prozedura abiarazten bada, interesduna horren jakitun dela, eta arau-hausleari ezin egotz dakioken arrazoiaren bat dela eta, prozedura hori hilabetetik gora geldirik bada, jarraitu egingo da epea zenbatzen.

VII. kapitulua. Parte hartzea

39. artikulua. Ordezkaritza Batzarra

Aldizkako azoketan parte hartzen duten merkatariek ordezkari batzar bat osatu ahalko dute horietako bakoitzean. Batzorde bakoitzak bost kide izango ditu, merkataritza baimenduen beren artean demokratikoki hautatuak, azokan dauden merkataritza alorretatik albat gehienak ordezkari egoteko moduan. Ordezkaritza Batzarra izango da saltzaileen bozeramaile Udal Administrazioaren aurrean.

Xedapen iragankorra

Ordenantza hau behin indarrean sartzean, bertan jasota ez dauden salmenta ibiltariko jarduerak debekatuta geratuko dira.

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe geratzen dira orain onesten den testuan ezarritakoaren kontrako xedapen guztiak, edo horrekin bateraezinak edo kontraesanean gertatzen diren maila bereko edo beheragokoak.

Azken xedapena

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan (Tokiko Gobernuaren eraberritzeko neurriak biltzen dituen 57/2003 Legearen emandako idazketan) ezarritakoaren ildotik sartuko da indarrean ordenantza hau.